

“Potolo egoteak errespetua irabazteko balio dit”

Aitor Zabalgoeazkoa |
Mugarik Gabeko Sendagileen zuzendari nagusia

Munduko tokirik arriskutsuenetara –Txetxenia, Somalia, Kolonbia edo Sudan– behin eta berriro bidaiatu zuen, harik eta *txiringito*-aren zuzendari nagusia izendatu zuten arte. Ez da sendagilea, logista baizik.

FERMIN ETXEGOIEN
Argakia: Débora Tenenbaum

Bakearen Nobel Saria eman zizueten duela gutxi. Mugarik Gabeko Sendagileak osatzen duzuenok onak zarete ala zuen artean ere badago beti putakumeren bat?

Denetik dago, leku guztietan bezala, baina gure lana eta bizimodua ezagutu ostean putakume gehienak beste leku batzuetara joaten dira.

Nora?

Dirua irabaztera, boterea dastatzera edo bizitza normala egitera.

Logikoa al da logista bat sendagileen nagusia izatea?
Haien lana behar den bezala egin ahal izateko modu logiko bakarra da.

***Invisibles* filma egiteak –ahaztutako gatazkei buruzko film labur bilduma– Javier Bardem-en lagun handi bilakatu zaitu. Haren neskalagun berria eza gutzen jada?**

Ez dut Pe ezagutzen. Halere biak publikoki zein maiz agertzen diren ikusita, Javierren bikotekidea Fernando Leon de Aranoa dela esango nuke. Hura bai, ondo ezagutzen dut.

Nola konponduko zenuke Osakidetzako gatazka?

LABekoa baino errazago! Ez nago jabetuta Osakidetzan gertatzen denaz, baina entzun dut LABen dimisioak eragin dituela, ezta?

Euskal Herria kolonia al da?

Bai, eta gu geu, euskaldunok, kolonoak.

Baita zu ere?

Momentu honetan Bartzelona okupatzen ari naiz.

Mundu osoan zehar bidaiatu duzu. Non da paradisua?
Kolonbiako kostaldeko Macondo antzeko edozein auzotxotan.

Zer egingo zenuke Afrikan jaio izan bazina?

Lehenik, ez nintzateke zurekin hitz egiten egongo. Bigarrenik, bertan flotadorea erosi eta patera batean ontziratatu.

Afrikarentzat ez al dago itxaropenik?

Bai, baina ez datozen urteetarako.

Barkatuko didazu, baina zure figura borobilak goseak dauden ume potoloena dakarkit gogora...

Leku gehienetan errespetua irabazteko balio izaten didan armarik onena da. Ni potolo ikusita denek ulertzen dute pertsona inportantea naizela. Nire barrurako, ordea, lotsa sentitzen dut haiek ez daukatena nik sobera daukadalak.

Jainkoaz badaukazu zerbait esateko?

Bai, baina orain arte ez dut erantzunik jaso.

Galdera ez da “Jainkoari zer esan nahi diozu”, baizik eta “Jainkoari buruz zer daukazu esateko”.

Aiba la ostia! Gauza bera: dirudienez Jainkoak ez duela erantzuten!

Erlijiorik gabe, munduko txiroak hobeto ala okerrago?

Buah, zer nolako galdera... Erljioarekin txiroak hobeto, dirudienez.

Komunikabideok gehienbat gezurrak esaten ditugu?

Esaten duzuenaren erdia gezurrak dira, eta gainera egiaztatu gabeko gezurrak izaten dira. ■